

2018KO MARTXOAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE MARZO DE 2018

Akta zenbakia: 03/2018
Bilera data: 2018-03-06
Bilera mota: Ez ohiko premiazko osoko bilkura
Deialdia: Lehenengoa
Ordu: 19:15- 19:40
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratutakoak:

Alkatea: Mikel Pagola Tolosa

Zinegotziak:

Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
David Rosco Jorge
Juan Luis Goikoetxea Benzala
M^a Pilar Sarasola Bulman
Manuel Mayoz Ostolaza
Mikel Izagirre Rekondo
Consuelo Frutos Gonzalez
Ivan Haro Marcos

Bertaratu ez direnak:

Itziar Artola Bedia
Ixiar Martiarena Lizarazu
Xabier Yurramendi Garmendia

Idazkaria:

Mateo Habibi Astigarraga López

Aztergaiak:

- 1.- Bilkura premiazkoa dela berrestea.
- 2.- 2018ko martxoaren 8a, "Emakume langileen nazioarteko eguna": PSE-PSOE talde politikoak aurkeztutako mozioa.
- 3.- 2018ko martxoaren 8a, "Emakume langileen nazioarteko eguna": EUDEL en adierazpena.

Acta nº: 03/2018
Fecha: 06-03-2018
Tipo de reunión: Pleno extraordinario y urgente
Convocatoria: Primera
Hora: 19:15- 19:40
Lugar: Salón de plenos del Ayuntamiento

Reunidos:

Alcalde: Mikel Pagola Tolosa

Concejales:

Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
David Rosco Jorge
Juan Luis Goikoetxea Benzala
M^a Pilar Sarasola Bulman
Manuel Mayoz Ostolaza
Mikel Izagirre Rekondo
Consuelo Frutos González
Iván Haro Marcos

Ausentes:

Itziar Artola Bedia
Ixiar Martiarena Lizarazu
Xabier Yurramendi Garmendia

Secretario:

Mateo Habibi Astigarraga López

Orden del día:

- 1.- Ratificar la urgencia de la sesión.
- 2.- 8 de marzo, día internacional de la mujer trabajadora: moción presentada por el grupo político PSE-PSOE.
- 3.- 8 de marzo, día internacional de la mujer trabajadora: declaración de EUDEL.

2018KO MARTXOAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE MARZO DE 2018

1.- Bilkura premiazkoa dela berrestea.

Mikel Pagolak hartzen du hitza, bilkura honen premia bertan jorratu beharreko bi mozioak “Martxoak 8ko” egunarekin lotuta daudelako dela azaltzeko.

Bozketara jarrita, bilkuran daudenen edo bertaratu diren zinegotziek, aho batez bilkura honen premia berresten dute.

2.- 2018ko martxoaren 8a, “Emakume langileen nazioarteko eguna”: Urnietako udaleko udal talde sozialistak aurkeztutako mozioa.

Mikel Pagolak hartzen du hitza puntu hau aurkezteko, eta Consuelo Frutos-i ematen dio bere mozioa aurkeztu eta defenda dezan:

Martxoaren 8an, Urnietako Udaleko Talde Sozialistak aurtan ere emakumeekin, horien eskubideen defentsarekin eta berdintasun politikekin duen konpromisoa adierazten du, erabakiak hartzeko orduan, eskubideetan eta bizitzaren eta gizartearen esparru guztietan gizonen eta emakumeen arteko benetako presentzia orekatu eta eraginkorrean demokratikoki justuagoa den gizarte bat lortzeko tresna gisa.

Aitortzen ditugu azken hamarkadetan gure herrian berdintasunaren alorrean eman diren aurrerapausoak, bereziki eskubideen arloan, baina era berean aitortzen dugu oraindik bidea dagoela benetako berdintasuna lortu ahal izateko. Asko dira esparruak, non emakumeok oraindik ez ditugun lortu aitortuak izateko beharrezkoak ditugun berdintasuna eta presentzia. Halaber, asko dago egiteko gizonen bizitza pribatuan dagozkien zaintza-lanetan eta arduetan dituzten erantzukizun-kuotak beren gain har ditzaten.

Ezin da benetako gizarte demokratiko bat egon, ez bagara gai populazioaren erdia baino gehiago direnen kontrako jokabideak eta jarrerak desagerrarazteko. Eta emakumeentzat patriarkatu zahar eta kaltegarrienaren emaitza den matxismo hori esparru guztietara zabaltzen da, familia, gizarte eta lan esparrutik, adierazpenik krudeleraino, hau da, emakumeek jasaten duten indarkeriaraino.

1.- Ratificar la urgencia de la sesión.

Toma la palabra Mikel Pagola para explicar que la urgencia de esta sesión está ligada a que las mociones que se van a tratar están relacionadas con el “8 de marzo”.

Sometido a votación, se ratifica por unanimidad de los concejales presentes o asistentes a la sesión, la urgencia de la misma.

2.- 8 de marzo, día internacional de la mujer trabajadora: moción presentada por el grupo municipal Socialista del Ayuntamiento de Urnieta.

Toma la palabra Mikel Pagola para presentar el punto y le cede la misma a Consuelo Frutos para la presentación y defensa de su moción:

“En el Día 8 de Marzo, el Grupo Municipal Socialista del Ayuntamiento de Urnieta. Manifiesta un año más su compromiso con las mujeres, con la defensa de sus derechos y con las políticas de igualdad como instrumento para avanzar hacia una sociedad democráticamente más justa y equilibrada en la toma de decisiones, en los derechos y en la presencia equilibrada real y efectiva entre mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida y la sociedad.

Reconocemos los avances que a lo largo de las últimas décadas se han desarrollado en nuestro país en materia de igualdad, especialmente en materia de derechos pero a la vez también reconocemos que aún queda camino por recorrer para poder alcanzar la igualdad real. Son muchos los ámbitos en los que las mujeres aún no hemos alcanzado la igualdad ni la presencia necesaria para ser reconocidas. Como también queda aún mucho por hacer para que los hombres asuman las cuotas de responsabilidad en los cuidados y en las responsabilidades de la vida privada que les corresponde.

No puede haber una sociedad verdaderamente democrática si no somos capaces de eliminar los comportamientos y actitudes machistas que atentan contra más de la mitad de la población. Y ese machismo, fruto del patriarcado más rancio y más perjudicial para las mujeres se extiende en todos los ámbitos, desde el familiar, social y laboral hasta la más cruel de las manifestaciones como es la violencia que se ejerce hacia las mujeres.

2018KO MARTXOAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE MARZO DE 2018

Matxismorik ez dagoen gizarte bat da gure helburua. Benetako berdintasuna dagoen gizarte-proiektu baten eraikuntza. Horregatik, Martxoaren 8ko egunaren ospakizunaren harira, Udal Talde Sozialistatik neurriak eta politikak aldarrikatzen jarraitzen dugu emakumeak protagonistak eta partaideak izango diren eraldaketa sakon bat ekarriko duen benetako gizarte-aldaketa bat lortzeko.

Zentzu honetan, emakumeek bizi duten desberdintasunik handiena lan-arloari dagokiona da, horregatik, Udal Talde Sozialistatik gure herriak Lan-arloan Berdintasun Lege bat izan dezan nahi dugu, emakumeek lana lortzeko eta lanean igotzeko dituzten diskriminazio-egoera desberdinak desagerrarazteko eta soldata-arraila ezabatzeko, zeinak prekaritatearekin eta behin-behinekotasunarekin batera, emakumeen lan-arloko desberdintasunaren euskarria baitira.

Udal Talde Sozialistak modu positiboan baloratzen du gehiengoa duten bi sindikatuak (UGT eta CC.OO) MARTXOAREN 8RAKO lehen aldiz deitu duten BI ORDUKO LANUZTEA, eta deialdi hori babesten du, eta gainerako Udal Taldeei eta langileei eskatzen die ekimen horrekin bat egin dezatela, emakumeek herri honetan lan-arloan orokorrean bizi duten desberdintasun-egoeraren aurrean kontzientziario eta aldarrikapen neurri gisa eta erakunde sindikalak direlako Legearen arabera lanuzte bat deitu dezaketanak.

Emakumeek jasan dutelako eta jasaten jarraitzen dutelako gehien krisiaren ondorioak. Emakumeen urteko batezbesteko irabazia ia 6 puntu txikiagoa delako gizonezkoenarekin alderatuta. Emakumeen jardura-tasa ia 10 puntu txikiagoa delako gizonezkoenarekin alderatuta. Emakumeen langabezia-tasa ia 4 puntu handiagoa delako gizonezkoenaren gainetik. Lanaldi partziala emakumeetan gutxi gorabehera heren bat gehiago delako gizonezkoena baino. Soldata-arraila batez beste %23koa delako emakumeen soldataren kalterako. Enplegu-tasa emakumeen artean murriztu egiten delako seme-alaba kopuruarekin gizonezkoenaren aurrean, hauena handitu egiten da. Emakumeen pentsioak txikiagoak direlako gizonezkoenena baino.

Una sociedad libre de machismo es nuestro objetivo. La construcción de un proyecto social de igualdad real. Por ello, con motivo de la conmemoración del 8 de Marzo, desde el Grupo Municipal Socialista seguimos reclamando medidas y políticas para un verdadero cambio social que suponga una profunda transformación estructural en la que las mujeres sean protagonistas y copartícipes.

En este sentido, una de las mayores desigualdades que viven las mujeres es la que se corresponde al ámbito laboral, por ello, desde el Grupo Municipal Socialista apoyamos que nuestro país cuente con una Ley de Igualdad Laboral que contribuya a erradicar las diferentes situaciones de discriminación que tienen las mujeres en el acceso al empleo, la promoción profesional, la eliminación de la brecha salarial, que junto a la precariedad y la temporalidad, conforman la columna vertebral de la desigualdad laboral de las mujeres.

El Grupo Municipal Socialista valora positivamente la iniciativa propuesta por los dos sindicatos mayoritarios (UGT y CC.OO) de convocatoria por primera vez de un PARO LABORAL DE DOS HORAS EN LA JORNADA DEL DÍA 8 DE MARZO, apoyando dicha convocatoria, e instando a los demás Grupos Municipales, a los y las trabajadoras a sumarse a dicha iniciativa, como una medida de concienciación y reivindicación ante la situación generalizada de desigualdad laboral que tienen las mujeres en este país y porque son las organizaciones sindicales las que pueden convocar un paro con arreglo a la Ley.

Porque las mujeres han sufrido y siguen sufriendo en mayor medida las consecuencias de la crisis. Porque las mujeres tienen de ganancia media anual cerca de 6 puntos menos de diferencia con respecto a la de los hombres. Porque la tasa de actividad de las mujeres es cerca de 10 puntos menor que la de los hombres. Porque la tasa de paro de las mujeres es más de 4 puntos por encima que la de los hombres. Porque el trabajo a tiempo parcial en las mujeres representa aproximadamente un tercio más que el de los hombres. Porque la brecha salarial se sitúa de media en un 23% en detrimento del salario de las mujeres. Porque la tasa de empleo entre mujeres se reduce con el número de hijos frente a la de los hombres que aumenta. Porque las pensiones de las mujeres son de menor cuantía que las de los hombres.

2018KO MARTXOAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE MARZO DE 2018

Arrazoi horiengatik guztiengatik eta hitz batez berdintasun-politikatan aurrerapausoak eman diren arren, emakumeek gizartearen esparru guztien baldintza berdinetan parte har dezaten galarazten duten género-diskriminazio larriak eta estereotipo sexistak daude oraindik, Udal talde Sozialistatik Urnieta Udaleko gainerako Udal Taldeei eskatzen diegu Udalbatzarrak onartu ditzala ondorengo

ERABAKIAK

1.- Urnieta Udalbatzarrak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari, gehienez ere sei hilabeteko epean, 2018-2020 urteetan garatzeko ekintza-plan bat aurkez dezala, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin batera, Lan eta Justizia sailaren politikak indartzeko eta soldata-arraila desagerrarazteko.

2.- Urnieta Udalbatzarrak eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari, gizarte-eragileekin batera, foro egokietan eztabaida sakon bat susta dezala soldata-arraila gainditzeko lagunduko duten neurriak adosteko.

3.- Urnieta Udalbatzarrak bat egiten du sindikatuek eta gizarte-eragileek MARTXOAREN 8RAKO deitu duten BI ORDUKO LANUZTEAREKIN, eta langileak animatzen ditugu ekimen horrekin bat egitera, emakumeek lan-arloan eta gizartearen esparru guztietan bizi duten desberdintasun-egoeraren aurrean kontzientziario eta aldarrikapen neurri gisa.

4.- Urnieta Udalbatzarrak Diputatuen Kongresuan ordezkaturik dauden Legebiltzarreko Taldeei eskatzen die Lan-arloan Berdintasun Lege bat aurkeztu eta onartu dezatela, eta erabaki hau Diputatuen Kongresuan Legebiltzarreko Taldeei helaraztea.

Mikel Izagirrek Urnieta udaleko EH Bildu taldekoak hartzen du hitza, adierazteko beraiek ahal duten guztia egin dutela beste taldeekin akordio batera irixteko eta testu bateratu bat onesteko, eta bozeramaileen batzarrean alderdi sozialistak bere testua proposatu zuenean, nahiz eta puntu batzuetan

Por todas estas razones y en definitiva porque a pesar de los avances en políticas de igualdad, aún persisten graves discriminaciones de género y estereotipos de carácter sexista que impiden a las mujeres participar en igualdad de condiciones en todos los ámbitos de la sociedad, desde el Grupo Municipal Socialista instamos a los demás Grupos Municipales del Ayuntamiento de Urnieta a la aprobación por el Pleno de los siguientes

ACUERDOS

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Urnieta insta al Gobierno Vasco a presentar en un plazo máximo de seis meses un plan de acción para su desarrollo en los años 2018-2020 que tenga como objetivo reforzar las políticas del departamento de Trabajo y Justicia, en colaboración con el Departamento de Empleo y Políticas Sociales para la eliminación de la brecha salarial.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Urnieta insta al Gobierno Vasco a promover, junto a los agentes sociales en los foros competentes un debate en profundidad para acordar medidas que ayuden a superar la brecha salarial y que se extiendan a los planes de igualdad, con especial énfasis en las pequeñas y medianas empresas.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Urnieta se suma a la iniciativa de los sindicatos y agentes sociales de convocatoria de PARO DE DOS HORAS EN EL DÍA DEL 8 DE MARZO y animamos a los y las trabajadoras a sumarse a ello, como una medida más de concienciación y sensibilización sobre la situación de discriminación de las mujeres en el ámbito laboral y en todos los ámbitos de la sociedad.

4.- El Pleno del Ayuntamiento de Urnieta solicita a los Grupos Parlamentarios representados en el Congreso de los Diputados la presentación y aprobación de una Ley de Igualdad Laboral, así como dar traslado de este acuerdo a los Grupos Parlamentarios en el Congreso de los Diputados.

Toma la palabra Mikel Izagirre del grupo EH Bildu del Ayuntamiento, para expresar que ellos han hecho todo lo posible para llegar a un acuerdo con los demás grupos y aprobar un texto unificado, y que cuando el grupo socialista propuso su texto en la junta de portavoces, a pesar de no tener un acuerdo

2018KO MARTXOAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE MARZO DE 2018

erabateko adostasunik ez eduki esfortzu handia egin dutela adostasuna bilatzeko bidean eta ezinezkoa izan dela bateratutako akordio bat lortzea. Hainbat herritan aurkeztutako eta onartutako mozioak izan dituztela mahai gainean. Bestalde, bere ezinegona adierazi nahi duela, alderdi sozialistaren jarrerarekin, zeren Batzar Nagusietan onartutako deklarazio instituzionala planteatu denean, non alderdi politiko guztiak parte hartu duten Alderdi Popularra ezik, alderdi sozialistari eskatu zaió bere testua alde batera utzi eta bateratasun bat bilatzea ezezkoa esan dute. Horretaz gain, adierazten du alderdi sozialistaren akordioko puntu batzuekin ados ez dagoela, adibidez, lehenengo puntuan, eskatzen zaió Eusko Jaurlaritzari bere eskuduntzakoak ez diren jarduera batzuk martxan jartzea, eta hau Madrilgo gobernuari eskatu behar zaiola, bertan alderdi sozialista urte askotan agintzen egon delarik. Horrekin batera, eskatzen zaiola Eusko Jaurlaritzari beraien planak enpresa txiki eta ertainetara heltzea, eta eskakizun hau ezin dela betearazi legislazioak behartzen ez duen bitartean. Hirugarren puntuari dagokionez bi orduko geldialdia proposatzen dela, eta beraiek alde dauela honekin, baino baita ere lau orduko geldialdiarekin eta kontzentrazioak egin behar badira, baita ere. Azkeneko puntuarekin erabat ados dagoela.

Bere ustez gai honetan ez dagoela inongo alderdi politikoren iritzia jaso beharrik, baizik eta amankomunean lana egin eta akordio batera iritxi beharra dagoela.

Adierazten du hainbat bilera egin ondoren gai honen inguruan, alderdi sozialistari eskatuko liokeela bere testua bertan behera uzteko, baina ulertzen duela bere eskubidean daudela testua aurkeztu eta bozketarako proposatzeko. Honenbestez, ikusirik gero proposatu behar den testua, alderdi sozialistaren mozioaren aurka bozkatuko duela.

Maribel Vaquerok Urnietako Euzko Abertzaleak taldeko bozeramaileak hartzen du hitza, adierazteko ez daudela ados alderdi sozialistaren mozioarekin, eta bozeramaileen batzarrean esan zuten bezala aurreneko bi puntuekin ez daudela ados iruditzen zaielako eskuduntza-esparruak ez dituztela errespetatzen; hirugarren puntuari dagokionez, aurkeztutako beste akordioan hobeto jasotzen dela, eta laugarren puntuan atentzioa deitzen diola hizkuntzaren aldaketa, hau da, lehenengo puntuetan "instan" hitza erabiltzen dela eta laugarrengoa

total en algunos puntos, han hecho un gran esfuerzo para llegar a un acuerdo y que ha sido imposible llegar a un acuerdo conjunto. Que han tenido sobre la mesa mociones presentadas y aprobadas en varios pueblos. Por otra parte, que quiere exponer su malestar con la actitud del partido socialista, ya que cuando se ha planteado la declaración institucional aprobada en las Juntas Generales, donde han participado todos los partidos políticos a excepción del Partido Popular, se le ha pedido al partido socialista que deje de lado su texto y busquen uno acordado, han dicho que no. Además de ello, ha expresado que no está de acuerdo con algunos puntos del acuerdo de partido socialista, por ejemplo, en el primer punto se le pide al Gobierno Vasco que ponga en marcha algunas acciones que no son de su competencia, y que eso hay que pedírselo al Gobierno de Madrid, ya que en el mismo ha gobernado durante muchos años el partido socialista. De la misma forma, se le solicita al Gobierno Vasco que sus planes lleguen a pequeñas y medianas empresas, y que esta petición no se puede ejecutar mientras la legislación no lo obligue. En cuanto al tercer punto, se propone un parón de dos horas, y que ellos están de acuerdo con ello, pero también con el parón de cuatro horas y si hay que hacer concentraciones, también. Están totalmente de acuerdo con el último punto.

En su opinión en este tema no es necesario recoger la opinión de ningún partido político, sino que hay que trabajar conjuntamente y llegar a un acuerdo.

Expone que después de hacer varias reuniones sobre este tema, le pediría al partido socialista que abandonara su texto, pero que entiende que están en su derecho de presentarlo y proponerlo para votación. Por lo tanto, visto el texto que hay que proponer después, va a votar en contra de la moción del partido socialista.

Toma la palabra Maribel Vaquero, la portavoz del grupo Urnietako Euzko Abertzaleak, para decir que no están de acuerdo con la moción del partido socialista, y tal y como dijeron en la Junta de Portavoces, no están de acuerdo con los dos primeros puntos, porque les parece que no respetan los ámbitos competenciales; en cuanto al tercer punto, que se recoge mejor en el otro acuerdo presentado y que en el cuarto punto le llama la atención el cambio de idioma, es decir, que en los primeros puntos se utiliza la palabra "instan" y el

2018KO MARTXOAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE MARZO DE 2018

“solicita”. Horretaz gain, bitxia iruditzen zaiola proposatzea “(...) que se solicite a los grupos parlamentarios representados en el Congreso de los Diputados (...)” eta adierazten du bakoitzak baduela bere talde parlamentario propioa, eta aurkeztu dezala talde parlamentario bezala lan-arloan berdintasunaren inguruan lege proposamen bat.

Vaquero andrearen ustez politikoki eszenifikatu nahi da alderdi sozialistak mantentzen duela bere mozioa, baina Izagirre jaunarekin bat egiten duela, hau da, alderdi guztiek esfortzu bat egin behar zutela akordio batera gerturatzeko.

Hau dena kontutan hartuta, bere taldeak alderdi sozialistaren mozioaren aurka bozkatuko duela, eta ondoren aurkeztuko denaren alde dagoela adierazten du Vaquero andreak.

Frutos andreak hartu du hitza, zeharkako aipamenengatik, eta esan du gauzak desberdintzea nahi lukeela, eta ez dakiela zergatik hartzen diren bi testuak mozioak balira bezala, bata mozioa baita eta bestea, berriz, adierazpen instituzionala. Azpimarratu du lehena aurkeztu duten mozio bat dela, eztabaidatu egin dena eta akordiorik lortu ez duten arren, hori mantentzea erabaki dutela. Bestalde, esan du adierazpen instituzionalarekin akordio batera iritsi badira, izan dela, azkenean, zehazki beraiek Batzar Nagusietan landutako erabaki instituzionala ekartzea lortu dutelako, Batzar Nagusietako testu horretan ere ez baitzen akordio batera iritsi.

Azpimarratzen du mozio hau Osoko Bilkura honetara aurkeztea ez dela inolako antzerkia eta bertan jasotzen diren hitz guztietan sinesten dute.

Ados jartzea lortu ez duten puntuen inguruan, hau da, 1. eta 2.-a, Eusko Jaurlaritzak eskuduntzarik ez duelako, kontra egiten du esanez badaudela Eusko Jaurlaritzako zenbait sail alor horretan eskuduntzak dituztenak, besteak beste, Lan eta Justiziarenari lan arloan laneko legegintzak gauzatzea dagokio. Gehitu du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Sailen Sorkuntza, Ezeztapena eta Aldaketari buruzko eta horien funtzio eta jarduketa eremuen zehaztapenari buruzko Lehendakariaren azaroaren 26 24/2016 Dekretuko 16 artikulua ezartzen duen bezala, Enplegu eta Gizarte Politika Sailak ere eskuduntzak dauzka, eta honi dagozkiola besteak beste, Enplegu Politika, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Sailen Sorkuntza, Ezeztapena eta Aldaketari buruzko eta horien funtzio eta jarduketa eremuen zehaztapenari buruzko Lehendakariaren azaroaren 26 24/2016 Dekretuko 8. artikulua ezartzen duen bezala.

cuarto punto “solicita”. También le parece extraño que se proponga “(...) que se solicite a los grupos parlamentarios representados en el Congreso de los Diputados (...)”, y dice que cada uno ya tiene su propio grupo parlamentario, y que presente, como grupo parlamentario, una propuesta de ley sobre igualdad en el ámbito laboral. Según la opinión de la señora Vaquero, se quiere escenificar de forma política que el partido socialista mantiene su moción, pero que está de acuerdo con el señor Izagirre, es decir, que todos los partidos debían de hacer un esfuerzo para acercarse a un acuerdo.

Tomando en cuenta todo lo anterior, su partido votará en contra de la moción del partido socialista y la señora Vaquero dice que está a favor del que después se va a presentar.

Toma la palabra la Sra. Frutos, por alusiones, para manifestar que le gustaría que se diferenciara las cosas, y que no sabe por qué se tratan los dos textos como mociones, ya que uno es una moción y el otro es una declaración institucional. Reitera que el primer texto es una moción que han presentado, se ha debatido, se ha discutido y que aunque no se ha llegado a ningún acuerdo han decidido mantenerla. Por otro lado, manifiesta que si han llegado a un acuerdo con la declaración institucional es porque finalmente han conseguido precisamente ellos traer un acuerdo institucional que se ha tratado en Juntas, porque ni siquiera en ese texto de las Juntas se había llegado a un acuerdo.

Insiste en que la presentación de esta moción a este Pleno no es ninguna obra de teatro y creen en todas las palabras que se recogen en la misma.

En cuanto a los puntos sobre los que no han conseguido ponerse de acuerdo, esto es, el 1º y 2º en referencia a que el Gobierno Vasco no tiene competencias, rebate que sí hay algunos departamentos del Gobierno Vasco que tienen competencias en este ámbito, entre otros, al de Trabajo y Justicia le corresponden entre otros la ejecución de la legislación laboral en materia de las relaciones laborales. Añade que tal y como establece el artículo 16 del Decreto 24/2016 de 26 de noviembre del Lehendakari, de Creación, Supresión y Modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos; también tiene competencias el Departamento de Empleo y Políticas Sociales al que le corresponden entre otros la Política de Empleo tal y como se establece en el artículo 8 del

2018KO MARTXOAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE MARZO DE 2018

Bestalde, adierazi du, berriki DEIA egunkariak argitaratutako berri batean, 2018ko otsailaren 1ekoa, hau jakinarazten dela: “Eusko Jaurlaritzak emakumeei jakinaraziko die *eta animatu egingo ditu ordainsariatari desberdintasun kasuak salatzea, laneko iruzurraren kontrako postontziaren bitartez, Lan eta Justizia Sailak abian jarritakoa [...] Hori da Iñigo Urkullu-ren Gobernuari zuzendutako aginduetako bat, gaur Eusko Jaurlaritzako osoko bilkurak aho batez onartu dueña, talde guztiek ospatu duten akordioa”.*

Gehitu du bere mozioan eztabaidatzen den puntuan eskatzen dena dela Eusko Jaurlaritzak sustatu dezala “ekintza plan bat 2018-2020 urteetan garateko”, Lan eta Justizia sailaren politikak indartzea helburu izango dueña.

Hau da, ez zaio Eusko Jaurlaritzari eskatzen ari bere eskuduntzetatik kanpo legeak egitea, estatu mailakoa izan daitekeen gai batean, baizik eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen zaiona da, indarrean dagoen legediaren barruan, Ekintza Plan bate gin dezala. Horretara bada eta eskuduna. Lehen aipatu dugun DEIA egunkariko berriak frogatzen duen bezala.

Mikel Izagirrek hartzen du hitza, eta esan du Frutos andreak esandakoarekin loturan, justu berak aipatutako artikuluetan oinarritu dela argudiatzeko Eusko Jaurlaritzak ez duela eskumenik. Azpimarratu du Eusko Jaurlaritzak eskumenak dituela legedia aplikatzeko, baina ez legeak egiteko.

Jarraitzen du Mikel Izagirrek adieraziz gertatu litekeela Eusko Jaurlaritzak berea den ikuskaritza eskumenaren baitan, jakingo baluke inongo enpresa edo administrazioetan nolabaiteko injustiziak ematen ari direla, lan berdinari soldata berdina dagokiola kontuan harturik, legedi laborala aplikatuz berdintasunaren apustua egin dezakeela. Baina beti ere, Eusko Jaurlaritzari legediaren aplikazioa dagokiola eta ez legeak aldatzea, eta legeak aldatu

Decreto 24/2016 de 26 de noviembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

Por otro lado, señala que en una noticia reciente, del Diario DEIA, de fecha 1 de febrero de 2018, se informa de que “El Gobierno Vasco informará y animará a las mujeres trabajadoras a denunciar los casos de *desigualdad retributiva a través del buzón contra el fraude laboral puesto en marcha por el Departamento de Trabajo y Justicia. [...] Este es uno de los mandatos dirigidos al Gobierno de Iñigo Urkullu que ha aprobado hoy el pleno del Parlamento Vasco por unanimidad, un acuerdo que han celebrado todos los grupos.*”

Añade que en su moción, lo que se solicita en el punto que se discute es que se promueva, por el Gobierno Vasco, un “plan de acción para su desarrollo en los años 2018-2020” que tenga como objetivo reforzar las políticas del departamento de Trabajo y Justicia.

Es decir, no se le está solicitando al Gobierno Vasco que legisle fuera de sus competencias en una materia que puede ser de competencia estatal, sino que lo que se le pide al Gobierno Vasco es que, dentro de la legislación vigente, realice un Plan de Acción. Para lo que, desde luego, es competente. Tal y como lo demuestra, la noticia del Diario DEIA de anterior mención.

Toma la palabra Mikel Izagirre para manifestar en relación con la intervención de la Sra. Frutos, que justamente los artículos que ella ha mencionado son en los que se ha basado para argumentar que el Gobierno Vasco no tiene competencias. Reitera que el Gobierno Vasco tiene competencias en la aplicación de la legislación, pero no en legislar.

Continua Mikel Izagirre exponiendo que podría ocurrir que el Gobierno Vasco, dentro de sus competencias de supervisión, si supiera que en alguna empresa o administración se están dando injusticias, teniendo en cuenta que al mismo trabajo le corresponde el mismo sueldo, podría hacer una apuesta por la igualdad, aplicando la normativa laboral. Pero que al Gobierno Vasco le corresponde la aplicación de la ley y no cambiar las leyes, y que

2018KO MARTXOAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE MARZO DE 2018

gabe pausu konkreturik ezin dela eman berdintasun bide honetan.

Maribel Vaquerok hartzen du hitza adierazteko mozio eta adierazpen instituzionalaren desberdintasunaren inguruan, adierazpen instituzionalaren kasuan talde guztien akordioa beharrezkoa dela eta mozioa, testu politiko bat dela eta horren baitan negoziatzen da ea adostasuna dagoen edo ez. Gaur planteatzen den egoeran, hiru taldeek testua onartzen dutenez adierazpen instituzionalizat hartzen da, eta honen arabera, adierazpen instituzional bat egiten bada gai baten inguruan ez dela egoten moziarik. Horregatik, beraiek eskatzen zutela deklarazio instituzionala bozkatzea eta alderdi sozialistak bere mozioa alde batera uztea, ez baita izapidetza normal bat bi testuak mantentzea.

Bozketara jarrita Urnieta Alderdi Sozialista taldeak aurkeztutako "Martxoak 8, emakume langileen nazioarteko eguna" mozioa, honako emaitza eman da:

Alde: 2 (URNIETAKO UDAL TALDE SOZIALISTA: 2)

Kontra: 8. (URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7; URNIETAKO EH BILDU: 1).

Abstentzioak: 0

Bertan behera geratzen da mozioa.

3.- 2018ko martxoaren 8a, "Emakume langileen nazioarteko eguna": EUDEL-en adierazpena.

Mikel Pagolak adierazten du, puntu honetan proposatzen den testua, Eudel-en adierazpenean jasotzen den testua dela, azkeneko hiru puntuak gehitu zaizkiolarik. Alderdi guztiek esfortzu bat egin dutela testu hau onartzeko, adierazpen instituzional batean bilakatuz, adostasun batera helduz. Testua hau da:

sin cambiar las leyes, no se pueden dar pasos concretos en ese camino a la igualdad.

Toma la palabra Maribel Vaquero para decir sobre la diferencia entre moción y declaración institucional, que en el caso de la declaración institucional, es necesario el acuerdo de todos los grupos y que la moción es un texto político, y dentro de ello se negocia si hay acuerdo o no. En la situación que se plantea en este momento, como los tres grupos aprueban el texto se toma por declaración institucional, y según ello, si se hace una declaración institucional sobre un tema, no suele haber moción. Es por ello, que ellos pedían votar una declaración institucional y que el partido socialista dejara de lado su moción, ya que no sería una tramitación normal el mantener los dos textos.

Sometida a votación la moción presentada por el Grupo Municipal Socialista del Ayuntamiento de Urnieta, "8 de marzo, día internacional de la mujer trabajadora, este es el resultado:

A favor: 2. (GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA DEL AYUNTAMIENTO DE URNIETA: 2)

En contra: 8. (URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 7, URNIETAKO EH BILDU: 1)

Abstenciones: 0

La moción no es aprobada.

3.- 8 de marzo, día internacional de la mujer trabajadora: declaración de EUDEL.

Mikel Pagola ha expuesto que el texto que se propone en este punto, es el texto que se recoge en la declaración de Eudel, habiéndosele añadido los últimos tres puntos. Que todos los partidos han hecho un esfuerzo para aprobar este texto, convirtiéndolo en una declaración institucional, llegando a un acuerdo. Es texto es el siguiente:

2018KO MARTXOAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE MARZO DE 2018

MARTXOAK 8: ZER GERTATZEN DA EMAKUMEEK EZ BADUTE ZAINTZEN, EZ KONTSUMITZEN, EZ LAN EGITEN, EZTA PARTE HARTZEN ERE?

Hausnarketa horrexek eraginda, iaz mugimendu feministak emakumeen nazioarteko greba-deialdia egitea erabaki zuen 70 herrialdetan baino gehiagotan; aurten, 2018an, "Emakumeok planto. Nosotras paramos" leloaren pean errepikatuko da. Grebaren xedea da emakumeen lanak gure gizartean duen eragina ikusaraztea eta lan hori aintzat har dadila eskatzea.

Gure gizartearen ongizatea ezinezkoa litzateke bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak egingo ez balira, alegia, pertsonak zaintzeari utzi ezker (haurrak, adinekoak, mendekoak...) edo etxeko lanak egiteari. Lan horietako gehienek ez dute ordainsaririk, eta batez ere emakumeek egiten dituzte. Emakumeen ekarpenik gabe, gizartea gelditu egingo litzateke.

Emakumeen lanaren zatirik handiena ez da ikusten eta ez da zenbatzen. Horrek esan nahi du etxeetan ekoiztiko ondasunen eta aberastasunaren balioa gutxietsi egiten dela, nagusiki emakumeek egiten dituzten lanorduak eta ekarpen ekonomikoa ukatu eta ikusezin bihurtzen direla, eta lan horiek osasun, giza eta babes aldetik, gizarteari ikaragarri aurreratzen diotela ere ez da azaltzen.

Lan-merkatuaren barruan eta kanpoan egindako orduak kontuan izanez gero, emakumeek gure gizarteko lanaren %56 egiten dute, baina baita ordainsaririk gabeko lanaren %74 ere. Gainera, feminizatutako lan asko, batez ere emakumeek egiten dituztenak, enplegu eskasekoak dira edo lan-merkatuko isilpeko ekonomiakoak. Sektore horretan, gainera, migratutako emakume ugari enplegatzen dira eta hauek beste emakume batzuen zaintzapean utzi behar izan dituzte seme-alabak beren sorterrian; hala, zainketa-kate globalak sortzen dira.

Eta kontua ez da egiten dituzten zereginiei buruzkoa soilik; izan ere, emakumeek zaintzan eta etxeko lanetan igarotzen duten denboraren ondorioz, gizonek denbora gehiago dute langintza eta lan-arloko ibilbidea garatzeko, edo aisiako edozein jarduera sozial egiteko; emakumeak, aldiz, oso nekez iristen dira jarduera horietara.

8 DE MARZO: ¿QUÉ PASA SI LAS MUJERES NO CUIDAN, NO CONSUMEN, NO TRABAJAN Y NO PARTICIPAN?

Esta reflexión llevó el año pasado al movimiento feminista a lanzar una convocatoria de huelga internacional de mujeres en más de 70 países y este año 2018 se repite bajo el lema de "Emakumeok Planto. Nosotras paramos". La huelga tiene por objeto visibilizar el impacto que tiene en nuestra sociedad el trabajo de las mujeres y exigir que este sea reconocido.

El bienestar de nuestra sociedad no sería posible sin la realización de actividades imprescindibles para la sostenibilidad de la vida como el cuidado de las personas (niñas y niños, mayores y personas dependientes...) o el mantenimiento de las tareas del hogar. Estas labores, mayoritariamente no remuneradas, recaen principalmente en las mujeres. Sin su contribución la sociedad se pararía.

Gran parte del trabajo de las mujeres está invisibilizado y no se contabiliza. Esto implica no solo que se subestime el valor de los bienes y la riqueza producidas en los hogares; además, niega e invisibiliza las horas y la contribución económica que suponen estas labores realizadas mayoritariamente por mujeres, e invisibiliza asimismo el enorme ahorro social que suponen en servicios de cuidado, sanitarios, sociales y de protección.

Si tenemos en cuenta las horas dedicadas dentro y fuera del mercado de trabajo, las mujeres asumen en nuestra sociedad el 56 % del mismo, pero realizan el 74% del trabajo no remunerado. Además, muchos de los trabajos feminizados, ocupados principalmente por mujeres, forman parte del empleo precarizado o incluso de la economía sumergida en el mercado laboral. Además, en este sector se emplean muchas mujeres migradas, que han tenido que delegar el cuidado de su familia en otras mujeres de sus entornos de origen, construyendo así las cadenas globales de cuidado.

Y es que no se trata únicamente de las tareas que realizan, sino que como consecuencia del tiempo que las mujeres dedican al cuidado y a las tareas del hogar, los hombres disponen de más tiempo que emplean en el desarrollo de su carrera profesional y laboral, o de cualquier actividad social o de ocio a la

2018KO MARTXOAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE MARZO DE 2018

Denbora erabiltzeko dauden alde handiak eragozpen larria dira berdintasuna lortzeko, eta gizon eta emakumeei buruzko estereotipoak betikotzeaz gain, generoaren ondoriozko erantzukizunak uztartzeko egiturazko oztopoa ere bada, besteak beste.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da gizarteak aitortzea zaintza-lana ezinbestekoa dela bizitzaren iraunkortasunerako; zainketaren inguruko gizarte mailako antolakuntza berri bat babestu beharra dago zeregin hori beste modu batera banatzeko, gizonen erantzunkidetasuna sustatu beharra dago, gizartea antolatzeko modu honen ondorioz erabakimen- eta botere-guneetan emakumeen talentuaren galera dagoela ikusarazi behar da, antolakuntza- eta enpresa-kultura berdintasunarekin lerrokatu behar dira, eta bizitza pertsonala eta laneko bizitza bateratzea sustatuko duten zerbitzu publikoak indartu behar dira.

Egoera honetaz JABETURIK, Urnieta Udalak hitza ematen du:

1.- Sentsibilizazio eta trebakuntza-programak gara ditzala aurrerantzean ere, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabakitzeko guneak emakumeekin partekatzeko. Bere eskumenen alorrean laguntzen jarrai dezala zaintza babesteko baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezen, eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatu dadin. Foru politikak genero-ikuspegiarekin gara ditzala hemendik aurrera ere. Balioen transmisioa azpimarratzeko zereginen iraun dezala, berdintasunezko gizartea lortzeko kultura-aldaketak sustatzeko.

2.- Urnieta Udalak babesten ditu martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta mugimendu feministak antolatu eta deitu duen lan, ikasketa, zaintza eta kontsumoaren esparruko greba-deialdia, bi eta lau orduko lanuzteak eta elkarretaratzeko beti ere emakume bakoitzaren aukera errespetatuz.

que las mujeres tienen grandes dificultades de acceso.

Este uso diferencial del tiempo constituye un importante freno para el avance en el objetivo de la igualdad traduciéndose en la perpetuación de los estereotipos sobre hombres y mujeres y en un obstáculo estructural para conciliar las diferentes responsabilidades atribuidas por género, entre otras consecuencias.

Por todo ello, resulta imprescindible reconocer socialmente los cuidados como condición indispensable para la sostenibilidad de la vida, apoyar una nueva organización social de los cuidados que redistribuya su provisión, impulsar la corresponsabilidad de los hombres, hacer visible la pérdida de talento de las mujeres en espacios de decisión y poder que provoca este modelo de organización social, alinear la cultura organizativa y empresarial con la igualdad y fortalecer los servicios públicos que favorezcan la conciliación entre vida laboral y personal.

CONSCIENTES de esta situación, el Ayuntamiento de Urnieta se compromete a:

1.- Continuar desarrollando programas de sensibilización y formación dirigidas a fomentar la corresponsabilidad de los hombres en las tareas de cuidado y mantenimiento del hogar, así como a compartir los espacios de decisión con las mujeres. Seguir contribuyendo en el ámbito de su competencia al desarrollo y consolidación de recursos y servicios públicos para apoyar el cuidado y promover la articulación de estrategias comunitarias para la corresponsabilidad social en los cuidados. Continuar desarrollando las políticas forales con perspectiva de género. Perseverar en la transmisión de valores para promover cambios culturales hacia una sociedad igualitaria.

2.- El Ayuntamiento de Urnieta apoya la convocatoria de huelga organizada y convocada en el ámbito del trabajo, la educación, los cuidados y el consumo por el movimiento feminista con motivo del 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres, así como los paros de dos o cuatro horas y las concentraciones convocadas, respetando siempre la opción de cada mujer.

2018KO MARTXOAREN 6KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 6 DE MARZO DE 2018

3.-Urrietako Udalak herritarrei dei egiten diete martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta mugimendu feministak antolatu eta deitu dituen ekitaldi eta ekintzetan parte-hartze bizia izan dezaten, egun horretarako deitu diren aukera ezberdinetarako erraztasunak emango dituztelarik.

4.-Era berean Urrietako Udalak herritarrak animatzen ditu arratsaldeko 18:00etan San Juan plazan ospatuko den elkarretaratzean parte hartzera.

Bozketara jarrita proposaturiko testua, bilkurara azaldu diren edo bertaratu direnen aho bateko adostasunarekin onartuta geratzen da.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak amaitutzat eman du ez ohiko eta premiazko osoko bilkura hau, goian adierazitako eguneko 19:40etan, eta nik, Urrietako idazkariak, hala egiaztatu dut, Alkatearen oniritziarekin.

Sin.: Mateo Habibi Astigarraga López

Idazkaria

3.- Finalmente, el Ayuntamiento de Urrieta llama a las y los urrietarras a participar de manera activa en los diferentes actos y acciones organizados y convocados por el movimiento feminista con motivo del 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres, dando facilidades para las diferentes alternativas que se han convocado para ese día.

4.-Así mismo el Ayuntamiento de Urrieta anima a la ciudadanía a participar en la concentración convocada a las 18:00 horas en la plaza San Juan.

Sometido a votación el texto propuesto, el mismo es aprobado por unanimidad de los concejales presentes o asistentes a la sesión.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario y urgente siendo las 19:40 en la fecha indicada en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, Secretario de Urrieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Mikel Pagola Tolosa

Alkate-presidentea,